

Hego Euskal Herriko eskola-liburutegien erabilera, kudeaketa eta funtzionamendua

*O. Jimenez Arrieta
J. F. Lukas Mujika
K. Santiago Etxeberria*

Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

GAKO-HITZAK: Ebaluazioa, Eskola-liburutegiak, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Euskal Herria

1. SARRERA

1.1. Testuingurua

Hego Euskal Herriko eskola-liburutegien ikerketa 2004-05 ikasturtean burutu da. Germán Sánchez Ruipérez Fundazioak babestu eta IDEAK —Hezkuntzarako Ebaluazioa eta Aholkularitza Institutua— gauzatu du Estatu mailako ikerlan hau. Artikulua osatzeko *Las Bibliotecas escolares en España* (Marchesi eta Miret, 2005) izenburupean argitaratutako liburua erabili da. Estatuko Autonomia Erkidego desberdinek parte hartu dute ikerlanean eta gure kasuan, Hego Euskal Herriko lau lurralde historikok.

Orotara, Hego Euskal Herriko lau lurraldetako 24 ikastetxek parte hartu dute. Hauetako zortzi Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan seina eta lau Araban.

Ikerketa honen aurretik, azken hamarkadan eginikoak hain zuzen, badira eskola-liburutegien egoeraren diagnostikoa egin eta administrazioaren esku hartzea orientatzeko egindako zenbait ikerketa. Hauen artean, honako Autonomia Erkidegoek sustatutakoak daude: Gaztela-Mantxa (Ortiz-Repiso eta Camacho, 2004), Nafarroa (Gobierno de Navarra: Dep. de Educación y Cultura, 1999) eta Katalunia (Diputación de Barcelona: Área d'Educació, 1990 eta Baró, Mañá eta Comalat, 2002) eta Estatu mailakoa berriz, 1995-96 urte bitartean eginikoa (ANABAD, FESABID eta Ministerio de Cultura, 1997).

Nahiz eta eginiko ikerketek zabaltasun eta metodologia ezberdintasunak izan, guztietan ondorio berera iritsi ziren, alegia adituek oinarriko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzeko proposatzen dituzten eredu eta baldintzetatik oso urruti gelditzen dela Estatu espainiarreko errealitatea.

Zehazkiago aipatuz, 1997an estatu mailan eginiko ikerlanera jotzen badugu, eskola-liburutegien horniduran eta funtzionamenduan hainbat hutsune antzeman zirela esan daiteke. Bide batez, honako hauek azpimarratzen dira:

- Nahiz eta orokorrean liburutegiaren funtzioa betetzen duen espazio bat izan, Lehen Hezkuntzan (LH) batez ere, ez zuten gutxieneko liburutegi zerbitzua emateko behar besteko espaziorik.
- Fondoetan, fikziozko eta ezagutza eta informazio dokumentuak aurkitzen ziren nahiz eta nazioarteko erakundeek aholkatzen dutena baino gutxiago izan. Desberdintasunak agertzen ziren Lehen eta Bigarren Hezkuntzako artean, lehenaren kalterako.
- Fondoen berrikuntzarako eta eguneratzeko eta liburutegian zerbitzua eskaintzeko aurrekontu urria antzematen zen.
- Nahiz eta liburutegiko arduradun funtzioak egiten dituen norbait egon, honek kudeaketa eta dinamizazio egokia egiteko ez zuen ez prestakuntza teknikorik ez eta pedagogikorik ere.
- Liburutegiaren ordutegia ez zen ikastetxearentzako zerbitzu egokia emateko adinakoa. Liburutegi gehienek ordutegi finkoa bazuten ere etapa bakoitzerako desberdina zen. LHko liburutegien %40 baino gehiagok astean 10 ordu baino gutxiago izaten zuten zabalik.
- Liburutegiko fondoan antolakuntzak ez zituzten katalogaziorako normalizatutako arauak jarraitzen.
- Etapa bakoitzeko liburutegietako automatizazioa desberdina zen. Ahalegin nabarmena ikusi izan da katalogazioaren digitalizazioan, baina LHkoak askoz gutxiago informatizatuak daude.
- Gehien erabiltzen den zerbitzua mailegua da; badira beste jarduerak batzuk, informazio bilaketa, lan monografikoetarako laguntza, irakurketa sustatzeko saioak edo-eta liburutegia eta informazio iturriak erabiltzeko formazioa maiztasun gutxiagorekin agertzen direnak.
- Liburutegiaren proiektua, curriculum proiektuaren baitan oso gutxitan agertzen da eta batzutan, ikastetxeko agiria izan behar zuenik ere ez zuten uste.
- Ikastetxeen portzentaje handi batean, laguntza eza eta kanpoko liburutegiekin lotura falta antzematen ziren (liburutegi publikoak, irakasleentzako zentroak eta baliabideak).

Emaitza hauek ikusirik, eskola-liburutegiak dauden egoera, bete beharreko oinarriko baldintzei dagokionez behinik behin, urria zela antzematen zen.

Eskola-liburutegien egoerara hurbiltzeko autonomia mailan lan ugari egin izan diren arren, espainiar Estatuko egoera bere osotasunean inork ez zuen hartu.

Eguneratutako diagnostikorantz

Testuinguru honetan, gaurkotasunezko diagnostikoaren beharra ikusi zen baina ez soilik datuak eguneratzeko baizik eta ikuspegi osatuago batetik (liburutegien erabilera, IKTen —Informazio eta Komunikazio Teknologiak— eta informazio iturri digitalen presentzia) errealitatea arakatzeko.

Beraz, ondorenean aurkezten den landa-azterketaren helburua orain arte ebaluatuak izan diren funtzionamendu alderdien ikusmira bat lortzea eta gaur egunean garrantzia duten beste alderdi batzuk gehitzea da.

Laburki, hauek dira egindako lanaren helburuak:

- Estatu mailako eskola-liburutegien ikuspegi gaurkotua ematea eta gurera etorrira Hego Euskal Herrikoa, kontutan harturik hutsuneak dituzten alderdiak, hauen garapen potentziala edo-eta etorkizunean esku hartzeko beharra izan dezaketen zenbait alderdi.
- Orain arte planteatutako ebaluazio prozedura osatzea, alegia izaera kuantitatiboa duen azterketari prozedura kualitatiboak erantsi, datuak bildu eta kontrastatzeko.
- Eskola-liburutegien dinamikan, erabileran eta sorreran parte hartzen duten pertsonaiak ikerketara gehitzea: zuzendaritza taldeak, liburutegiko arduradunak, ikasleria eta irakasleria.
- Ebaluaziorako irizpide berriak aintzat hartzea bereziki, ikasleek eta irakasleek egiten duten liburutegien erabilera, informazio iturri digitalen eta beste baliabide teknologikoen erabilera (hornidura, jasotako eta eskainitako formazioa, erabilerak...).

Diagnostikoa eta gomendioa

Las Bibliotecas escolares en España (Marchesi eta Miret, 2005) ikerlana egoeraren diagnostiko osatua eta gaurkotua egiteko, liburutegien funtzionamendu eta erabilera alderdiak kontutan hartzeko eta ikastetxeko jardura pedagogikoaren baitan atxikitzeko asmoz sortu zen.

Xede nagusiak, analisirako eta hausnarketarako tresna izateaz gain, esku hartzeko eremuak zehaztea eta eskola-liburutegien hobekuntzarako neurri eta ekimen berriak ahalbidetzea dira.

Ikuspegi honetatik, ikerlana eskola-testuingururako laguntza bezala aurkezten da, egoeraren ikusmira gaurkotua emanez, iradokizunak eskainiz eta garapenerako bultzada emanez.

Erantzukizun eta eskuduntza ezberdinetako eragileak aintzat hartu dira. Norabide honetan, hezkuntza administrazio (zentrala eta autonomikoa), ikuskaritza, pedagogia-taldeak (zuzendaritza, irakasleak, liburutegiko arduraduna), elkarre espezializatuak, fundazioak, ikerketa erakundeak eta unibertsitate mailako formazioak elkarren artean arituz eta koordinatuz, eskola-liburutegiak beharrezko dituzten tresnez hornitzeko eta informaziorako, ikasketarako, kulturarako eta formaziorako zentro bihurtzen laguntzeko bidea dela ikusi da.

1.2. Europako egoera

Europako hainbat herrialdeetako legedia aztertu ostean hauen arteko konparaketa egin zen zenbait ondoriotara iritsiz. Hauetako batzuk aurkeztuko dira.

Europan aztertu diren herrialde guztietan eskola-liburutegien sustapenerako politika bat badute, nahiz eta kasuan kasuko garapen egoera eta eskolako bizitzan duen integrazio maila ezberdinak izan.

Hedatuena dagoen eskola-liburutegi ereduak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua laguntzeko multimedia baliabideak dituen aretoa da.

Eskola-liburutegia informazio gizartean beharrezkoak diren konpetentziak eta ikaskuntza autonomoa garatzeko beharrezko baliabidea dela uste da.

Herrialde gehienetan, eskola-liburutegiak IKTen sarrerarekin, euskarri berrietan dagoen informazioa lortzeko eta informazio sareetara hurbiltzeko bidea izan dira.

Kooperatiba sareen atal izaten dira eskola-liburutegiak eta funtzionamendua bermatzen duten kanpoko laguntza zerbitzuak dituzte.

1.3. Legedia¹

1. taula

Legedia eta ekimenak

Euskal Autonomia Erkidegoa	Nafarroako Foru Erkidegoa
Legedia:	
<p>—Otsailak 19ko Euskal eskola publikoaren legeak 1/1993, zenbait jarduera eta zerbitzu proposatzen ditu hezkuntzaren kalitatea hobetzeko konpromisoa eta lege markoa eskainiz, 4. artikuluan, e) atalean, «<i>Hezkuntzaren helburuak erdiesteko [...] euskal eskola publikoak [...] ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuari egokitutako instalazioak eta hornidurak izango ditu</i>» zehazten da. Eskola-liburutegien funtzionamenduari dagokionez ez da honelako araurik zehaztu. (EHAA 38, 1993-02-25)</p> <p>—Bestalde, urriaren 1eko 228/2002 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen duenak bere 6. artikuluan hainbat bide irekitzen ditu: «<i>CTP edo PBT-ak (Plangintza Batzorde Teknikoa) ikastetxeetan zenbait lanpostu berri sortzea aztertuko du (eskolaz kanpoko jardueren dinamizatzailea, Zuzendaritzari laguntza, IKT arduraduna, liburutegiko arduraduna, kirol jardueren arduraduna...).</i> [...] hezkuntza administrazioak lanpostu hauek betetzeko konpromisoa hartzen du ikastetxe bakoitzean, baliabide pertsonalen arabera» (EHAA 204, 2002-11-25).</p> <p>—Eskola-liburutegiak ez dira liburutegi autonomikoen sisteman sartzen, baina etorkizunean aurrera eramandako ekimenak direla eta loturak egiteko aukerak daude.</p>	<p>—Nafarroako Liburutegi Sistema arautzen duen 32/2002 foru legeak honela definitzen du eskola-liburutegia: «<i>Eskolako liburutegiak oinarritzko baliabide-zentroak dira, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza eta curriculum proiektuetan erabat txertatuak, eta informazio zerbitzu aktiboa ere badira, betekizun funtsezkoa duena ikasleen ikasketekin, irakaskuntza lanekin eta ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunearekin loturik</i>». Gaineratzen du, «<i>Hezkuntza sistemari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ezartzen du ikastetxe guztietan egon behar dela liburutegi bat, irakaskuntzaren parte bezala, ikasle eta irakasleei irekia eta foru legeak emandako eginakizunak betetzeko behar adinako baliabide dokumentalak, tokiarenekin aldatuak zein langileenak izanen dituen</i>» (32/2002 Foru Legea, NAO 142, 2002-11-25).</p> <p>—Liburutegi publikoen eta eskolakoen arteko harremana ere arautzen du (32/2002 Foru Legea, NAO 142, 2002-11-25):</p> <ol style="list-style-type: none"> «<i>Liburutegi publikoek laguntza emanen diete eskola liburutegiei liburutegien arteko mailaguarren bitartez. Halaber, aholkularitza teknikoa, erabiltzaileentzako prestakuntza, eta elkarren arteko programetan parte hartzeko aukera ere emanen diete</i>». «<i>Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren eta Foru Komunitateko eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentroyen arteko harremanak hitzarmen bidez ezarri eta erregulatuz garatuko dira</i>». <p>—Liburutegiak eskaini beharreko baliabide pertsonal eta zerbitzuak: ikastetxeetako antolakuntza eta funtzionamendu arauen bitartez erregulatzen dira. Eskola-liburutegiari dagokionez jasotzen diren erreferentziak: «<i>Arlo guztietako programazioek eskola liburutegiko baliabideen erabilerari buruzko atal bat izanen dute</i>» (172/2004 Foru Agindua, NAO 91/2004, 2004-7-30).</p>

¹ Legediaren inguruko zehaztasun gehiago A. Marchesik eta I. Miretek eginiko liburuan eta argitaratzeko bidean dagoen beste artikuluko batean aurki daitezke.

Ekimenak:	
<p>—Hezkuntza Saila: ikastetxe bakoitzak baliabideen, beharren eta zerbitzuaren balorazioaren arabera antolatzen du eskola-liburutegia.</p> <p>—Ez dago eskola-liburutegientzako diru-partida zehatzik, ikastetxe bakoitzak funtzionamendurako edo ekipamendurako jasotzen duen diru-partidatik antolatzen du.</p> <p>—Ikastetxeen gain dago fondoak eskuratzeko ardua ekonomikoa.</p> <p>—ACEX (Actividades Complementarias y Extraescolares) Programak eta ondoren egin diren deialdiek, eskola-liburutegien proiektuak egitea ahalbidetu du.</p> <p>—1995-1996 urtean Bizkaian egindako esperientzia pilotuaren hedapena.</p> <p>—ACEX (Actividades Complementarias y Extraescolares) Programak eta ondoren egin diren deialdiek, eskola-liburutegien proiektuak egitea ahalbidetu du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1997: deialdi publikoa HH, LH eta DBHrako. <p>—1998tik aurrera proiektuaren arduradunarentzako eta parte hartzen duten irakasleentzako derrigorrezkoa da formazio ikastaroetara joatea.</p> <p>—Formazio plan pilotuak, 240 orduko ikastaroak eskaintzen ditu 2 urtetan burutzekoak.</p>	<p>—1998an eskola-liburutegien onurarako formazio eskaintza eta <i>Abies</i> programa zabaltzeko aukerak eman ziren.</p> <p>—1999an, Berrikuntza Pedagogikorako Zerbitzuak eskola-liburutegiak hobetzeko errealitatea ezagutzeko diagnosia egin zuen (Gobierno de Navarra: Departamento de Educación y Cultura, 1999).</p> <p>—2000. urteko martxoak 27an, Foru Parlamentuak eskola-liburutegien berrikuntzarako plana onartu zuen.</p> <p>—2001ean, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, irakurketa sustatzeko plana osatzen du Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako Printzipioetako bat honako hau dugu: «<i>Eskola-liburutegia beharrezko tresna da irakurketa planak arrakasta izateko. Ikastetxeko irakasleek ongi antolatua eta dinamizatua egon behar du</i>» (583/2002 Ebazpena eta 527/2002 Ebazpena, NAO 110, 2002-09-11).</p>

2. METODOLOGIA

Ebaluazio ereduaren ondoko elementu hauek osatzen dute:

- Eskola-liburutegien funtzionamenduan eragiten duten aldagai multzoak biltzen dituen dimentsioen ezarpena: liburutegiaren funtzionamenduaren ikusmira deskriptiboa izateko aldagaiekin (instalakuntzak eta ekipamendua, bilduma, pertsonala, kudeaketa eta funtzionamendua) batera erabilerari, balorazioei eta erabiltzaileen asebetetzeari dagokion aldagaiak.
- Liburutegien kudeaketan, dinamizazioan eta erabileran parte hartzen eragileen ikuspegiaren bilketa: zuzendaritza taldeak, liburutegiko arduradunak, irakasleria eta ikasleria.
- Datu kuantitatiboak lortzeko tresna aproposak (berariazko galdera-sortak) erabiltzea batetik eta datu kualitatiboak eskuratzeko prozedurak (behaketa sistematikoa eta elkarrizketa) bestetik.

Ondorengo taulak laburtzen digu aitzinean aipatutako elementuen arteko lotura:

2. taula
Ebaluazio eredia

	Zuzendaritza Taldeak	Arduradunak	Irakasleria	Ikasleria	Kanpo-behatzaileak
Ikastetxeko liburutegia					
Ekipamendua, instalakuntzak eta teknologia					
Bilduma					
Pertsonala					
Kudeaketa eta funtzionamendua					
Erabilera eta erabiltzaileak					
Balorazioak					

2.1. Dimentsioak

Aurreko taulan ikus daitekeenez, zazpi dimentsioz osatutako ebaluazioa da bakoitzak bere berariazko ebaluazio irizpideak biltzen dituelarik. Artikulu honetan zazpi dimentsio hauetatik azken hirurak aztertu dira, hala nola, Kudeaketa eta funtzionamendua; Erabilera eta erabiltzaileak eta Balorazioak.

- I. *Kudeaketa eta funtzionamendua*: Aurrekontua (kopuruak, ekarpen ekonomikoak egiten dituzten erakundeak, kudeaketa sistema eta arduraduna). Orduategia (eskola-orduetako eta hauetatik kanpoko irekitako unek, astean irekitako orduak, ikasleentzako orduategi modalitatea). Arduradunaren eta irakasleen arteko koordinazioa. Beste liburutegi eta dokumentazio zentroekin harremana. Hezkuntza-komunitatearen parte hartzea. Ebaluazioa eta estatistika.
- II. *Erabilera eta erabiltzaileak*: Ikasleen bisitaldiak (maiztasuna, unek eta modalitatea). Irakasleen bisitaldiak (maiztasuna eta modalitatea). Zerbitzu orokorrak eta informazio zerbitzuak. Eskaintako eta erabilitako berariazko programak. Ikasleek burutzen di-

tuzten jarduerak. Irakasleek burutzen dituzten jarduerak. Eskola-orduetan eta hauetatik kanpo egiten diren jarduerak. Ikasleek eskola-liburutegiaren erabileraren inguruan izandako formazioa. Erabilera sustatzeko estrategiak (irakasleek erabilitako estrategiak, ikasleek erabiltzen dituzten estrategiak, arduradunaren hautematea). Liburutegiaren eta bertako materialaren zabalkunderako estrategiak.

- III. *Balorazioak*: Liburutegiak betetzen dituen funtzioekiko asebetetze maila(oinarrizko lorpenak). Hezkuntza-komunitateak ematen dion garrantzia. Hobekuntza desiratuak.

2.2. **Eragileak**

Ebaluazioan parte hartu duten eragileak hauek izan dira:

- Zuzendaritza Taldea, ikastetxeko arduraduna eta lan-programa ezberdinen sustatzailea den aldetik.
- Liburutegiko arduraduna, liburutegiko kudeatzailea eta dinamizatzailea delako.
- Irakasleria, liburutegiko erabiltzailea eta planifikazio, kudeaketa eta dinamizazioko parte hartzailea den neurrian.
- Ikasleria, erabiltzailea eta kudeaketarekin eta dinamizazioarekin zerikusia duten jardueretako parte hartzailea delako: Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailakoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3 mailakoak eta Batxilergoko 2. mailakoak.

2.3. **Tresnak**

Datuak jarraian azaltzen diren zazpi ebaluazio-tresna bidez jaso dira:

- Bost berariazko galdera-sorta:
 - Zuzendaritza Taldearentzako.
 - Liburutegiko arduradunarentzako.
 - Irakasleriarentzako.
 - Lehen Hezkuntzako ikasleentzako.
 - Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako.
- Zuzendaritza Taldea elkarrizketatzeko protokoloa, hainbat aldagai deskribatzailearen kontrastea egiteko proposatua eta erabilera eta liburutegiaren errendimenduari buruzko balorazioa ezagutzeko.
- Behaketa sistematikoa egiteko protokoloa, instalakuntza, ekipamendu, teknologia eta bildumaren deskribapena egiteko aldagaietan oinarritua.

2.4. Datu teknikoak

Hauek dira azterlan honetako datu teknikoak:

- Lagina: 24 ikastetxe; 197 irakasle eta probintzia eta ikasmaita ezberdinetako Lehen Hezkuntzako 225 eta Bigarren Hezkuntzako 515 ikasle.
- Datak: tresnen proba pilotua (2004ko ekaina); datu bilketa (2004ko azaroa).
- Eremu geografikoa: Hego Euskal Herria.
- Ikastetxe mota: publikoak (LH eta BH) eta kontzertatu/pribatuak.
- Ebaluazio-tresnak:
 - Zuzendaritza Taldeari elkarrizketa (ikastetxeko bat).
 - Zuzendaritza Taldearentzako galdera-sorta (ikastetxeko bat).
 - Liburutegiko arduradunarentzako galdera-sorta (ikastetxeko bat).
 - Irakasleentzako galdera-sorta (ziklo eta mintegi guztietakoak).
 - Ikasleentzako galdera-sorta (ikasmaitaren arabera).
 - Behaketa protokoloa (ikastetxeko bat).

3. EMAITZAK


Aurreko atalean azaldu den moduan, azterketa honetan Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoetako ikastetxeek parte hartu dute. Baina lagin hau, Estatu osoan egindako azterketaren zati bat besterik ez da. Horrek esan nahi duena zera da: Hego Euskal Herriko datuak izateaz gain, Estatu osoan lortutako emaitzak ere baditugula. Beraz, nahiz eta gure azterketan gure testuinguruan gertatutakoa azaldu, lortutako emaitzak Estatukoekin alderatzerakoan desberdinak direnean, diferentzia hauek aipatuko ditugu.

3.1. Kudeaketa eta funtzionamendua

3.1.1. Aurrekontua

Lehen grafikoan ikus daitekeen bezala, %40 inguruan, ikastetxeek aurrekontu finkorik ez dutela adierazten dute. Dutenen artean aldiz, ia %20ak 300 € baino gutxiago dutela adierazten dute. Beste %25ak 300 € eta 700 € arteko aurrekontua dutela baieztatzen dute. Gainontzeko %20ak aldiz, 700 €tik gorako aurrekontua dute.


Erraz antzeman daitekeen moduan, diru kopuru hauek eskasak dira eskola-liburutegiak ongi hornituak izateko. Era berean, azken hiru urte hauetan ia aldaketarik ez dela eman beha daiteke.



1. grafikoa
Aurrekontuak

Liburutegiko arduradunei aurrekontuaren iturriari buruz galdetu zaie-
nen, ia erdiak nondik zetorren ez zekiela adierazi du. Ezagutzen dutenen
artean 2. grafikoa azaltzen dira emandako erantzunak. Estatuan lortuta-
ko datuekin alderatuz gero, ikus daiteke bi kasuetan diru-iturri nagusia
ikastetxea bera dela, baina Hego Euskal Herriko ikastetxeen kasuan, er-
kidegoek eta udalek eskaintzen dutena Estatukoa baino zertxobait gehia-
go da.


Aurrekontuen kudeaketari dagokionez, lautik hirutan (%76,5) zuzenda-
ritza taldeak berak egiten du eta gainontzekoan liburutegiko arduradunak.



2. grafikoa
Aurrekontuen iturria

3.1.2. Ordutegia


Hirugarren grafikoan ikus daitekeen bezala, liburutegiak eskola orduetan irekiak egoten dira (%82,4). Eskola bukatu ondoren ere, ikastetxeen %41,2ak zabalik mantentzen ditu. Era berean, jolas garaian eta jatorduetan hirutik bat irekita egoten da. Emaitza hauek ez datoz bat Espainia mailan lortutakoekin. Hauetan, jolas orduetan bitik bat irekita egoten den bitartean, jatorduetan %16,1 besterik ez.



3. grafikoa

Irekiera garaiak

Asteazken zehar liburutegiak zenbat ordu irekita dauden jakiteko 4. grafikora jo behar dugu. Ikus daitekeen bezala, ikastetxeen arteko desberdintasunak handiak dira. Ehuneko 35ak bost ordu edo gutxiago bakarrik irekitzen du liburutegia. Bestalde ia bitik batek 11 ordu baino gehiagotan du zabalik liburutegia eta %29ak 20 ordu baino gehiago.



4. grafikoa

Zabalik dagoen ordu kopurua

3.1.3. Ebaluazioa


Ikastetxeen ehuneko oso handiak (%64,7k) ez du liburutegiaren inongo ebaluaziorik egiten.

3.1.4. Koordinazioa

Irakasle eta liburutegiko arduradunen arabera, beraien arteko koordinazioa oso eskasa da. Koordinazio eza gainera bi norabideetan ematen da: bata, irakasleriak liburutegiaren dinamikan parte hartzen ez duelako eta bestea, irakasleek dituzten premiak arduradunari zehazten ez bazaizkie, honek elkarlana ez duela bultzatzen onartzen du.

Bosgarren grafikoan ikus daitekeen bezala, ebaluatu diren irizpide gehienetan ez da %30era iristen. Gainera lortutako emaitzak Estatu mailan lortutakoekin alderatuz gero, emaitzak baxuagoak dira, nahiz eta diferentziak oso nabarmenak ez izan.

Halere, bitxikeria gisa zera aipa daiteke: galderak erantzun dituzten bi taldeek (arduradunek eta irakasleek alegia) bere ardurako gaia izan denean, besteak baino gutxiago lagundu dutela koordinazioan pentsatzen du.




5. grafikoa

Arduradun eta irakasleen arteko koordinazioa (baiezko erantzunen ehunekoa)

3.1.5. Hezkuntza komunitatearen partaidetza

Seigarren grafikoan beha daitekeen moduan, irakasleak dira batez ere liburutegiaren kudeaketan parte hartzen dutenak (%70.6). Ikasleen partaidetza aldiz, oso baxua da (%5,9). Gainontzekoen partaidetza ere baxua da.




6. grafikoa

Taldeen partaidetza (%)

3.1.6. *Harremanak beste liburutegiekin*

Eskola-liburutegiek beste liburutegiekin dituzten harremanak baxuak edo oso baxuak direla baieztatu daiteke. Erlazioa dagoenean, gehienetan inguruko liburutegi publikoarekin izaten da (%29,4) eta gutxiago Berritzegunee-kin (%17,6) eta beste eskola-liburutegiekin (%17,6). Bestalde, dokumentazio eta artxibo guneekin eta liburutegi-sareekin dauzkaten harremanak hutsalak dira.




7. grafikoa

Eskolako liburutegiek zein erakunderekin elkarlana egiten duten (%)

Liburutegi publikoekin batera elkarlanean zein lan egiten dituzten galdetu zitzaizenean, %53ak erantzun gabe utzi zuen. Hurrengo grafikoa (8.a) ikus daitezkeen bezala, eskola-liburutegiko arduradunek liburutegi publiko-ko arduradunekin formazio eta aholkularitza jarduerak izaten dituzte (%35,3). Estatuko datuekin alderatuz gero, diferentzia nabarmena da, han %11 baita jardura honen balioa. Gainontzekoan, gutxi batzuk ikasleekin bisitak egiten dituzte (%17,6) eta material maileguak (%11,8). Hortik au-

rrera ez dago beste erlaziorik bi erakundeen artean. Emaitza hauek Estatuan azaldutakoaren antzekoak dira.



8. grafikoa

Liburutegi publikoarekin batera egindako jarduerak (%)


3.2. Erabilera eta erabiltzaileak

Atal honetan, eskola-liburutegiek erabiltzaileentzat eskaini dezaketena azalduko da. Horretarako, besteak beste, bere baliabideak eta antolaketa aztertuko dira. Zentzu horretan, zerbitzu orokorrak, informazio zerbitzuak, maileguak eta liburutegiak antolatzen dituen programak izan dira ebaluazio atal honen ardatzak. Gero, irakasleek eta ikasleek egiten duten liburutegiaren erabilera analizatu da: bisiten maiztasuna eta momentuak, egiten diren jarduerak motak, liburutegian jarduteko jasotako prestakuntza, liburutegia erabiltzeko erabiltzen diren estrategiak eta abar.

3.2.1. Zerbitzu orokorrak

Hego Euskal Herriko eskola-liburutegiek, Estatuko gainontzeko liburutegien gisa inprimatutako materialen kontsulta aretoan eta gelara maileguan eramateko zerbitzuak eskaintzen dituzte eta zehazki, hauek dira erabilienak. Hala ere, norbere etxera maileguan eramateko aukera, Espainian ikastetxeen %73,2ak eskaintzen duen bitartean, gurean %47,1ak besterik ez (ikus 9. grafikoa). Beraz, datu kaskarra hau ere.

Dena dela, bada pozik egoteko daturik. Hego Euskal Herriko liburutegien %41,2k norbere lanak egiteko ordenagailuak eskaintzen dituen bitartean, Espainian ez da erdira iristen (%20,3). Era berean Espainian internetera sarrera eskola-liburutegien %28ak bakarrik eskaintzen duen bitartean, Hego Euskal Herriko eskola-liburutegien %52,9ak du aukera hori. Gainontzeko alderdietan ez da inongo alderik antzeman.




9. grafikoa

Eskaintako zerbitzu orokorrak (ikastetxeen %)

3.2.2. *Informazio zerbitzuak*

Ehuneko 58,8ak galdera hau ez erantzutea esanguratsua izan da. Ondoko grafikoan ikus daitekeen bezala bat bera ere ez da iristen %30era. Lau ikastetxeetatik baten, berrien buletina eta aldizkarien laburpenak prestatzen dira. Eskaintako gainontzeko informazio zerbitzuen ehunekoak hutsaren hurrengoak dira.



10. grafikoa

Eskaintako informazio zerbitzuak (ikastetxeen %)

Irakasleek diotenaren arabera, zerbitzu hauek ez dituzte ia erabiltzen (besteak beste ez direlako eskaintzen). Baina hala ere, zenbaitetan erabilpenaren ehunekoa eskaintakoaren azpitik gelditzen da. Beraz, egoteak ez du ziurtatzen bere erabilera.


3.2.3. Mailegua

Ikasle, irakasle eta liburutegietako arduradunek emandako erantzunak alderatu eta gero, antzeman daiteke mailegu zerbitzua dela hedatuena eta erabiliena. Mailegu mota desberdinak (gelakoa, banakakoa, e.a.) ikastetxeen ehuneko handi batean eskaintzen dira.

3.2.4. Prestakuntza programak

Aipatutako zerbitzu orokorraz gain, eskola-liburutegiek zer-nolako prestakuntza programak eskaintzen dituzten jakin nahi izan da: irakurketa ohiturak sustatzeko, informazio iturrien erabilera prestatzeko, bitarteko digitalak erabiltzeko, e.a.

Kasu honetan, Hego Euskal Herriko datuak Espainiakoeekin alderatuz gero, okerxeago gaudela antzeman daiteke. Hiru ikastetxetatik bik (%35,3) ez duela inongo jardura plangintzarik egin onartu du. Emaitza zerbait baxuagoa da Espainiaren kasuan (%30). Hala ere, irakurketa azturak sustatzeko jardueri buruz galdetu zaienean diferentzia nabarmenagoa da. Espainian, bi ikastetxetatik batek (%51) honelako jarduerak antolatzen dituen bitartean, gure testuinguruan hirutik batek bakarrik (%35,3).




11. grafikoa

Liburutegiak antolatutako prestakuntza programak (ikastetxeen %)

Aurreko datu guztiak aztertu ondoren garbi gelditzen da, eskola-liburutegien ardura nagusia oinarritzkoak diren zerbitzu minimoak betetzea dela (ireki, maileguak, kontsulten arreta, e.a). Baliabide urritasunak liburutegirako garrantzitsuak izan daitezkeen beste alderdien prestakuntza programak eskaintzea ez du ahabidetzen.

Irakasleek erabilitako programei dagokionez, 12. grafikoa azaltzen dira beraiek emandako erantzunak. Ikus daitezkeen bezala, irakasleek gehien parte hartzen duten programa irakurketa azturak sustatzekoa da (%43). Ondoren, liburutegiaren eta bere materialen erabilerarekin erlazionatutako programa gelditzen da (%35) eta, azkenik, teknologia berriak eta dokumentu elektronikoen erabilera ikasteko programa (%13,%).



12. grafikoa

Irakasleen partehartzea bere ikasleekin liburutegiak antolatutako programetan (ikastetxeen %)

Ikasleek diotenari so egiten badiogu, lortutako emaitzak oraindik ezko-ragoak dira, bai hemen eta baita Espainiako kasuan ere. Ikasleek diotena-ren arabera, beraien partaidetza liburutegiek antolatutako programetan oso eskasa da. Gehienek, ia inoiz ez dutela parte hartzen horrelakoetan diote. Egia bada ere, honelako programak antolatzeko ikastetxe gutxik ditu bitar-tekoak; ikasleek emandako erantzunen arabera, eskaintzen dena baino gu-txiago erabiltzen dutela dirudi.

3.2.5. Eskolaz kanpoko orduetan eskaintzen den zerbitzua


Ikastetxeen %59ak liburutegia eskolaz kanpoko orduetan irekitzen du. Ordu hauetan egiten diren jarduerak honako hauek dira: dokumentuak kon-sultatu, gelan irakurri, etxerako lanak egin, ikasi eta mailegua gauzatu. Jarduera hauek eskolako orduetan egiten diren berberak dira.

3.2.6. Ikasleen bisitak

Orokorrean, bai Lehen Hezkuntzako ikasleek eta baita Bigarrenekoek ere, liburutegira gutxi joaten direla onartzen dute. Hala ere, ondoren ikas-leen bisiten momentuak, maiztasunak, e.a. zehazten dira.

Ikasleen liburutegiko bisiten maiztasuna eskasa da. Gainera ikasle eta ira-kasle asko dira liburutegira inoiz joaten ez direla esaten dutenak. Lehen Hez-kuntzako ikasleen kasuan %13 den bitartean, Bigarren Hezkuntzako %26 da. Irakasleen kasuan ehuneko hauek handiagoak dira (%50 ingurukoak). Edozein kasutan, emaitza hauek Espainian emandakoen antzekoak dira.


Liburutegira zein unetan joaten diren aztertzen baldin badugu, harriga-rria den lehenengo gauza zera da: ikasleen %31ak, eskola orduetan ez dela inoiz joaten adierazi du. Era berean, eskolaz kanpoko orduetan, liburute-giaren erabilera eskasa da (%9,5).



13. grafikoa

Erabileraren momentuak

Ondorengo grafikoak (14.ak) Bigarren Hezkuntzako ikasleek zein momentutan eta zenbat erabiltzen duten liburutegia azaltzen du. Ikus daitekeen bezala, berriz ere liburutegiaren erabilera eskasa da. Ikasleek diotenaren arabera, hirutik batek ez du inoiz erabiltzen liburutegia eskola orduetan. Dena dela, Espainiako datuekin alderatuz gero, hobeto gaudela esan genezake, han ehuneko 56ra iristen baita. Bestalde, Espainiako datuen arabera, ikasleen erdiak ez du liburutegia erabiltzen jolas orduetan edota jatorduetan. Ehuneko hau handixeagoa da Hego Euskal Herriko ikastetxeetan (%63,3). Azkenik, eta honetan ez dago desberdintasunik, ikasleen %70ak ez du inoiz erabiltzen liburutegia eskolaz kanpoko orduetan.



14. grafikoa

Erabilera momentuak


Oso garbi antzeman daiteken bezala aurreko grafikoan, Hego Euskal Herriko ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako ikasleek batez ere eskolako orduetan erabiltzen dute liburutegia (erabiltzen duten ikasleen kasuan). Gainontzeko orduetan eskolako liburutegiaren erabilera oso urria da.

3.2.7. *Ikasleen jarduerak*

Ikasleek egiten duten liburutegiaren erabilera ohikoa da: kontsulta, irakurketa, ikasi eta mailegua. Erabilera sustatzeko jarduerak edo informazio iturri digitalen erabilera eskasa da. Ikuspegi hau, bai liburutegiko arduradunek eta baita ikasleek ere eskaini dute.

Liburutegiko arduradunek emandako erantzunen arabera ikasleek honako jarduera hauek burutzen dituzte bertan: gelan dokumentuak kontsultatu (%58), liburutegi-gelan irakurri (%57), etxerako lanak eta ikasi (%44) eta maileguak gauzatu (%40). Gainontzeko jarduerak (programatutako jarduerak —ipuin kontalariak, liburu-egileekin elkarrizketak, eta abar—, interneten ibili, ikus-entzunezko materialak miatu...) oso gutxi egiten dira, %15en inguruan edo azpitik.

Arduradunek duten ikuspegiaren antzekoa ikasleek ere baieztatu dute. Beraien ustez, liburutegian gehien egiten dituzten jarduerak materialen kontsulta, irakurketa, mailegua, etxerako lanak eta ikastea dira. Emaitza berberak lortu dira Espainia mailan ere, baina han gertatu ez den bezala, ikasleen herenak (%29,4) liburutegian bere eskolako lanak egiteko interneten kontsultak egiten dituela esaten du.




15. grafikoa

Ikasleek liburutegian burutzen dituzten jarduerak (ikasleen %)

3.2.8. *Liburutegien erabilera ikasgaien arabera*

Ikasleek emandako erantzunen arabera, liburutegia gehien bisitatzen den ikasgaietan honako hauek dira: Hizkuntza eta Literatura eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia (nahiz eta kasu gehienetan %50era ez iritsi). Beste batzuk, erabilera ertainean azaltzen dira: Natur Zientziak eta Atzerriko Hizkuntza. Gainontzeko ikasgaietan berriz, ez dute %16a gainditzen. Emaitza hauek hala ere, Espainian lortutakoak baino zertxobait altuagoak dira. Joera hau ikasgai guztietan antzeman da.




16. grafikoa

Liburutegien erabilera ikasgaien arabera (ikasleen %)

3.2.9. *Ikasleen ustez jaso duten prestakuntza*

Bisiten maiztasuna eta uneak, egiten dituzten jarduerak liburutegira hurbiltzen direnean eta ikasgaien araberako erabilera galdetzeaz gain, ikasleei zein izan den beraien ustez jaso duten prestakuntza bertan jarduteko galdetu zaie. Zentzu honetan ere, liburuak eta beste materialak zer-nola ordenatuak dauden liburutegian, katalogoa nola erabiltzen den ba ote dakiten eta abar galdetu zaie.


Autonomiari buruz galdetu zaienean, ondoko 17. eta 18. grafikoetan ikus daitekeen bezala emaitzak desberdinak dira. Lehen Hezkuntzako ikasleek diotenaren arabera hirutik batek bertako katalogoa erabiltzen badaki, hirutik bik onartzen dute erakutsi egin dietela liburutegia erabiltzen, lautik hiruk badaki nola dauden ordenatuak liburuak eta beste materialak eta %93k badaki hiztegia eta entziklopedia erabiltzen. Emaitza hauek Espainia mailan lortutakoen parekoak dira.



17. grafikoa

Lehen Hezkuntzako ikasleen ustezko autonomia

Bigarren Hezkuntzako ikasleek emandako erantzunei so eginez gero zera ikus dezakegu: ikasleen %37,1ak badaki liburutegiko katalogoa erabiltzen, ia erdia berarentzat interesgarriak izan daitezkeen nobedadeetaz jakinaren gainean dago, %70 inguruan materialak nola ordenatuak dauden badaki eta liburutegiko arduradunari laguntza eskatzen dio premia duenean. Azkenik, %68,7ak badaki nola gauzatu behar den mailegua.




18. grafikoa

Bigarren Hezkuntzako ikasleen ustezko autonomia

Azkenik, informazio iturri desberdinak erabiltzeko duten gaitasunei buruz galdetu zaie ikasleei. Garbi azaldu behar dugu, lan honetan, ikasleek diotena jaso dugula eta ez benetan beraiek dituzten konpetenziak. Ondoko grafikoan (19.ean) ikus daitezkeen bezala, Bigarren Hezkuntzako ikasleek diotenaren arabera lautik hiruk badaki hiztegiak eta entziklopediak erabiltzen informazioa ateratzeko eta gutxi gora-behera erdiak bilatzaileak eta interneten nabigatzen badaki. Internetako entziklopediak erabiltzen %40ak dakiela dio eta posta elektronikoa %34,2ak. Bibliografiak eta gomendatutako liburuen zerrenda lautik batek bakarrik ezagutzen dituela dio eta azke-

nik, bostetik batek onartzen du katalogoak eta artxibategiak ezagutzen dituela. Edozein kasutan, emaitza hauek baxuak dira Bigarren Hezkuntzako ikasleak direla kontutan hartzen baldin badugu. Gainera Espainiako datuekin alderatuz gero, paperezko hiztegi eta entziklopedien erabilera kenduta, beste guztietan nahikoa nabarmen azpitik gelditzen dira.




19. grafikoa

Bigarren Hezkuntzakoek erabiltzen dakizkiten informazio iturriak (ikasleen %)

3.2.10. Irakasleek egiten duten erabilera

Azterketa honetan jakin nahi izan da ikasleekin ez daudenean irakasleek noiz, nola eta zertarako erabiltzen duten liburutegia. Egia esan lortutako datuak harrigarri xamarrek suertatu dira.




20. grafikoa

Irakasleek zein maiztasunez joaten diren liburutegira irakasgaiarekin erlazioatutako kontsultak egiteko (irakasleen %)

Aurreko grafikoan beha daitekeen moduan irakasleek oso gutxi erabiltzen dute liburutegia beraien irakasgaiarekin erlazionatutako kontsultak egiteko. Hiru irakasletik batek ia inoiz ez dela liburutegira joaten onartzen du. Eta beste %17a hiru hilabetetik behin, eskasa hau ere. Gainontzekoen artean, hilean behin lautik batek, eta beste batek astean behin.

Ondoren galdetu zitzaizen zein jarduera burutzen dituzten bertan. Ondoko grafikoan antzeman daitekeen moduan, irakasleriak, bere irakaste eta planifikaziorako lan gutxi egiten du liburutegian.




21. grafikoa

Irakasleek, ikaslerik gabe, beraien irakasgaiarekin erlazionatuta burutzen dituzten jarduerak

Grafikoan beha daitekeenez, ebaluatutako jardueren artean, bat bera ere ez da %25era iristen. Irakasleen laurdenak, gelako mailegua, bilerak eta elkarrizketak, irakurri, Interneten nabigatu eta horrelakoak egiten ditu. Gainontzeko jarduera gehienak berriz oso ehuneko eskasean ematen dira. Eraitza hauek Espainian ateratakoen antzekoak dira.

Irakasleen portzentaje handiak (%70,6) eskolak emateko erabiltzen duen bitartekorik onartuena testu liburua dela baieztatzen du. Hala ere, ehuneko handiak ere (%62,4) ikasgelan informazio iturri askotarikoak erabiltzen dituela esaten du. Edozein kasutan, zuzenean ikasleak jardueraren bat liburutegian burutu behar duenean lortutako ehunekoak askoz ere baxuagoak dira (gehienetan irakasleen erdiak baino gutxiagok erabiltzen ditu): informazioa bilatzea (%46,4), ikerketa lanak (29,7), eta abar.



22. grafikoa


Irakasleriak ikasgelan erabiltzen dituen estrategiak liburutegiaren erabilera sustatzeko

Liburutegia eskola orduetan ikasleekin bisitatzea (bai bertan eskolak emanez edo ikasleek bere kabuz joan daitezenean) oraindik ere proportzio eskasagoan ematen dira: eskola orduetan liburutegira joateko aukera erraztea (%22,2) edo ikasleekin lan egiten liburutegian (%13,5).

Datu esanguratsuen artean honako hau ere legoke: irakasleen ia ehuneko 70ak ez die informazio iturri desberdinak erabiltzen erakusten bere ikasleei.

Dena dela emaitza guzti hauek Espainia mailan lortutakoaren parekoak dira.

Antzeko galderak egin zaizkienean ikasleei, hau da, beraien ustez zein neurriraino ondoko estrategia hauek erabiltzen diren beraien eskola orduetan, ikuspegia oraindik ere negatiboagoa da. Ikus bestela 23. grafikoa.




23. grafikoa

Bigarren Hezkuntzako ikasleen ustez ikasgelan erabiltzen diren estrategiak

Ikus daitekeen bezala, ikasleek diotenaren arabera, liburutegiaren erabilera sustatzeko estrategiak oso eskasak dira (irakasleek diotena baino eskasagoak), nahiz eta Espainiako maila berean egon. Lau ikasletik batek bakarrik dio liburutegiko materialak ikasgelan erabiltzen dituztela. Ehuneko 80ak baino gehiagok onartzen duenaren arabera, ez dizkiete liburutegiko liburuak irakurtzea proposatzen ez eta informazioa bilatzeko liburutegira joatea ere.

3.2.11. Erabileraren balorazioa




24. grafikoa

Zuzendaritza talde, irakasle eta arduradunen balorazioak. Liburutegiak ikasleei eskaintzen dizkien aukeren ustiapena (ondo edo oso ondo aukeratu dutenen ehunekoak)

Aurreko grafikoan ikus daitekeen bezala, liburutegiko arduradunek, zuzendaritza taldeek eta irakasleek egiten dituzten balorazioak negatiboak dira. Liburutegiak ikasleei eskaintzen dizkien aukeren artean, bakarrik fikziozko irakurketan gaintitzen du ehuneko 50a. Orokorrean okerren baloratua dagoena liburutegiaren kudeaketa eta funtzionamenduan ikasleen inplikazioa da. Talde desberdinen artean ez da inoiz %15era iritsi balorazioa.

Espainiako datuekin alderatuz gero, bakarrik informazio eta komunikazio teknologien erabileran gelditzen dira gaineratik. Espainiako kasu balorazioak %15aren inguruan dauden bitartean, Hego Euskal Herrian %20 gaintitzen da kasu guztietan. Hala ere, datu hauek ez dira behar bezain positiboak.



25. grafikoa

**Zuzendaritza talde eta arduradunen balorazioak.
Liburutegiak irakasleei eskaintzen dizkien aukeren ustiapena
(ondo edo oso ondo aukeratu dutenen ehunekoa)**

Aurreko grafikoak (25.ak alegia) zuzendaritza taldeek eta liburutegiko arduradunek, irakasleek egiten duten liburutegiaren erabilerari buruzko balorazioak eskaintzen ditu.

Kasu honetan, lortutako emaitzak Espainian lortutakoen parekoak dira. Ebaluatutako alderdien artetik, bitan, zuzendaritza talde eta liburutegiko arduradunen iritziak positiboak dira: fikziozko irakurketa eta informazio iturrien erabileran. Bi kasu horietan emaitzak %50ekoak edo garagokoak baitira (liburutegiko arduradunenaren kasuan izan ezik).


Liburutegiaren kudeaketa eta funtzionamenduan inplikatzeari dagokionez berriz, ikasleen kasuan gertatu den bezala, iritziak negatiboak dira.

3.3. Talde desberdinen balorazioak

Azkenik, dimentsio honetan, talde desberdinek (zuzendaritzek, irakasleek, arduradunek eta ikasleek) beraien ikastetxean liburutegiari ematen dioten garrantziari buruzko iritziak jaso dira. Besteak beste, interesguneak honako hauek izan dira:

- Talde bakoitzaren asebetetze maila.
- Talde bakoitzaren aburuz, gainontzeko taldeek liburutegiari ematen dieten garrantzia.
- Talde bakoitzak bere premien arabera nahi dituen hobekuntzak.

3.3.1. Asebetetze maila



26. grafikoa


Zuzendaritza talde, arduradun eta irakasleen ustez liburutegiak emaitza egokiak lortzen dituen alderdiak (ehunekotan)

Ikus daitekeen bezala, orokorrean hiru taldeek, Irakurketarako zaletasuna sustatu eta Ikasleek informazio iturrien erabilera ikasteko laguntza eman, alderdiak dira hobekien baloratzen dituztenak. Beste alderdiei dagokionez, eskolak prestatzeko materiala edo curriculumarekin loturiko informazio eskaintza aukera zabalari buruz, orokorrean hirutik bat azaltzen da pozik. Ebaluatutako gainontzeko alderdietan berriz, lortutako asebetetze maila oso eskasa da, nahiz eta agian horiek ez izan liburutegi baten funtzio garrantzitsuenak. Edozein kasutan, emaitza hauek Espainia mailan lortutako parekoan dira.

Ikasleen asebetetze mailari dagokionez, bereiztu egin ditugu Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen emaitzak. Ondoko bi grafiko horietan ikus daitezke beraiek emandako erantzunak.


Lehen Hezkuntzako ikasleek egin dituzten balorazioen arabera pozik azaltzen dira bere ikastetxeko liburutegiarekin. Hau alderdi guztietan gertatu da azkenekoan izan ezik. Hau da, beraien ustez ezin dute joan liburutegira premia duten bakoitzean beraien ordutegia eta liburutegiarena ez baitatoz bat.

Bigarren Hezkuntzako ikasleak berriz kritikoagoak dira beraien ikastetxeko liburutegiarekin. Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, nahiko ondo baloratzen dituzte liburutegian dauden ezagutza ezberdinetako eta kontsulta liburuak, irakurketa liburuak, mailegua, liburutegiko ordutegia eta gune desberdinak. Baina, hortik aurrera, gainontzeko alderdiak nahiko



27. grafikoa

Liburuetegiari buruzko Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen iritziak (%)



28. grafikoa


Liburuetegiari buruzko Bigarren Hezkuntzako ikasleen iritziak (%). Gaizki edo oso gaizki

gaizki gelditu dira: ordenagailuak eta Internet, lanak egiteko jasotzen duten laguntza, bertan antolatzen diren jarduerak, aldizkari eta egunkariak eta ikus-entzunezkoak.

3.3.2. Liburuetegiari ematen zaion garrantzia


Eragile guztien arabera, eskola-komunitateak liburuetegiari ematen dion garrantzia modu baikorren baloratutako alderdia da. Bai zuzendaritza taldeek, liburuetegiko arduradunek eta baita irakasleek ere onartzen dute ikastetxearentzat liburuetegia gune oso garrantzitsua dela talde denentzako familientzat izan ezik.

29., 30. eta 31. grafikoetan ikus daitekeen moduan, liburuetegiko arduradunek, irakasleek eta zuzendaritza taldekoek diotenaren arabera, hiru




29. grafikoa

Zuzendaritza taldearen ikuspegitik eskola komunitateak liburutegiari ematen dion garrantzia (%)



30. grafikoa

Arduradunaren ikuspegitik eskola komunitateak liburutegiari ematen dion garrantzia (%)



31. grafikoa

Irakasleen ikuspegitik eskola komunitateak liburutegiari ematen dion garrantzia (%)


talde horiek nahiko garrantzia ematen diote liburutegiari. Baina, hirurek onartzen dutenaren arabera, gurasoek liburutegiari ematen dioten garrantzia eskasa da.

3.3.3. Gura diren hobekuntzak

Ondoko grafikoan (33.ean) ikus daitekeen moduan, zuzendaritza taldekoek garbi dute zeintzuk diren hobetu beharreko alderdiak.

Premia larriena, bildumak berritzeko eta eguneratzeko aurrekontuak handitzea litzateke beraien aburuz. Ondotik (zuzendarien %56,7a), irakasle eta ikasleen aldetik liburutegiaren erabilera hobetzea adierazten dute. Hirugarren lekuan, bitarteko elektronikoen hobekuntza nabarmen-tzen dute. Hiru alderdi hauek, Espainia mailan ateratako emaitzen parekoa da.

Era berean, nahiz eta maila apalagoan izan, badira beste hobekuntza batzuk beharrezkoak direnak beraien iritziz: Espazioa eta instalazioak (%47,8), Irakurketa azturak sustatzeko programa espezifikoak (%30,4), Arduradunak liburutegiari ordu gehiago eskaintzea (%34,8), Irakasleen prestakuntza informazioa teknologietan (%26,1), Beste liburutegiak in-harmanak izatea (%26,1).




32. grafikoa

Zuzendaritza taldeek gura dituzten hobekuntzak (%)

Ondoko grafikoan ikus daitekeen moduan, arduradunei galdetu zaienean zeintzuk diren gura dituzten hobekuntzak, zuzendaritza taldekoekin bat etorri dira. Era honetan hobetu beharreko alderdiak honako hauek aipatu dituzte: Irakasleek eta ikasleek gehiago erabiltzea (%64,7), Bilduma berritzeko au-

rrekontua (%58,). Era berean, Espazioa eta instalakuntzak (%52,9), Arduradunaren ordutegia zabaldu (%47,1).




33. grafikoa

Arduradunek gura dituzten hobekuntzak (%)

Dena dela, nahiz eta zuzendaritza taldekoek ez aipatu, arduradunen us-tez, hobetu beharreko alderdien artean, irakasle eta beraien arteko koordinazioa da (%41,2).


Irakasleen hobekuntzak liburutegiari dagokionez, bertako aurrekontuan eta ikasle eta irakasleen erabilera azaltzen dira ondoko grafikoan ikus daitekeen moduan.



34. grafikoa

Irakasleek gura dituzten hobekuntzak (%)

Azkenik, ikasleei gauza bera galdetu zaienean, emaitzak ez datoz bat aurrekoek emandakoekin.



35. grafikoa

Ikasleek (Bigarren Hezkuntzakoak) gura dituzten hobekuntzak (%)

Garbi dago ikasleentzat garrantzitsuena ordenagailu gehiago Internetera konektatuak izatea dela. Ondoren, ea portzentaje berean, dokumentu elektroniko gehiago eskatzen dituzte.

4. ONDORIOAK

1. Ikastetxeen aurrekontuak eskasak dira fondoak berritzeko.
2. Liburutegiak eskola orduetan egoten dira irekita. Jatorduan eta eskola orduak bukatu ondoren normalean itxita egoten dira. Irekita dauden ordu kopurua eskasa da.
3. Liburutegiko arduradunek diotenaren arabera, irakasleekin duten koordinazioa eskasa da.
4. Batez ere irakasleriak kudeatzen eta dinamizatzen du liburutegia, ikasleriak partaidetza eskasa duelarik.
5. Liburutegiek eskaintzen dituen zerbitzuen ezjakintasuna dago.
6. Liburutegiek, nahiz eta liburutegi publiko eta beste informazio zerbitzuekin harremanak izateko aukerak izan, bakarrik lan egiten dute.
7. Liburutegiek ez dute bere burua ebaluatzen.
8. Mailegua da gehien erabiltzen den zerbitzua, gelako mailegua bana-kako mailegua baino hedatuagoa dagoelarik.
9. Norberak etxera maileguan liburuak eramateko aukera, harrigarria bada ere, bakarrik ikastetxe erditan egin daiteke.
10. Informazioaren teknologien erabilerarekin erlazioatutako zerbitzuak ez daude gainontzeko ohiko zerbitzuak bezain hedatuak. Halere, Estatuko datuekin alderatzerakoan emaitzak askoz ere positiboagoak dira.

11. Informazio zerbitzuak (bibliografiak, aldizkarien laburpenak, be-rien buletinak, e.a.), liburutegiko %80an ez dira existitzen eta egiten diren lekuetan ez dira batere erabiliak irakasleentzat.

12. Orokorrean, Hego Euskal Herriko ikastetxeetan antolatzen diren prestakuntza programak eskasak dira. Estatuko datuak hobekien dira.

13. Oso ikastetxe gutxietan antolatzen dira liburutegiarekin erlaziona- tutako prestakuntza programak talde desberdinentzat (irakasle, ikasle,...).

14. Orokorrean, ikasleak gutxi joaten dira liburutegira. Harrigarria bada ere, ikasleek herenak liburutegira inoiz ez dela joaten esan du (ez bere ka- buz eta ez eta bere irakasleekin ere).

15. Ikasleak liburutegira joaten direnean egiten dituzten jarduerak ohi- koak dira: kontsultak, irakurketa, ikasi eta mailegua. Erabilera sustatzeko aktibitateak edo iturri digitalen erabilera eskasa da.

16. Erabilera handiena ikasgai humanistikoetan ematen da.

17. Ikasleek esandakoaren arabera, liburutegian materiala nola antola- tua dagoen badakite, nola eskatu materialak maileguan eta baita entziklo- pediak eta hiztegiak erabiltzen. Baina gehienek ez dakite liburutegiaren ka- talogoak erabiltzen.

18. Irakasleek oso gutxi erabiltzen dute liburutegia beraien dozentzia- rekin erlazionatutako kontsultak egiteko.

19. Liburutegiko arduradunek, zuzendaritza taldeek eta irakasleek egi- ten dituzten balorazioak negatiboak dira. Liburutegiak ikasleei eskaintzen dizkien aukeren artean, bakarrik fikziozko irakurketan onartzen da liburu- tegiak nahiko aukera ematen dizkiela ikasleei.

20. Orokorrean hiru taldeek (arduradunek, zuzendariak eta irakas- leek), Irakurketarako zaletasuna sustatu eta Ikasleek informazio iturrien erabilera ikasteko laguntza eman, alderdiak dira hobekien baloratzen di- tuztenak. Gainontzeko alderdietan berriz, lortutako asebetetze maila oso eskasa da.

21. Lehen Hezkuntzako ikasleek egin dituzten balorazioen arabera po- zik azaltzen dira bere ikastetxeko liburutegiarekin. Hala ere ez daude hain gustura liburutegiko ordutegiarekin.

22. Bigarren Hezkuntzako ikasleak berriz kritikoagoak dira beraien ikastetxeko liburutegiarekin. Nahiko ondo baloratzen dituzte liburutegian dauden ezagutza ezberdinetako eta kontsulta liburuak, irakurketa liburuak, mailegua, liburutegiko ordutegia eta gune desberdinak. Baina, hortik aurre- ra, gainontzeko alderdiak nahiko gaizki gelditu dira: ordenagailuak eta In- ternet, lanak egiteko jasotzen duten laguntza, bertan antolatzen diren jar- duerak, aldizkaria eta egunkariak eta ikus-entzunezkoak.

23. Agente guztien arabera, eskola-komunitateak liburutegiari ematen dion garrantzia positiboki baloratutako alderdia da. Bai zuzendaritza tal- deek, liburutegiko arduradunek eta baita irakasleek ere onartzen dute ikas- tetxearentzat liburutegia gune oso garrantzitsua dela talde denentzako fa- milientzat ezik.

24. Premia larriena, bildumak berritzeko eta eguneratzeko aurrekontuak handitzea litzateke zuzendari, irakasle eta arduradunen aburuz. Ondotik, irakasle eta ikasleen aldetik liburutegiaren erabilera hobetzea adierazten dute. Hirugarren lekuan, bitarteko elektronikoen hobekuntza nabarmentzen dute.

25. Garbi dago ikasleentzat garrantzitsuena ordenagailu gehiago Internetera konektatuak izatea dela. Ondoren, dokumentu elektronikoko gehiago eskatzen dituzte.

26. Ia emaitza guztietan, lortutako ondorioak, Espainia mailan lortutako parekoak dira.

Jasotze-data: 2006-03-04

Onartze-data: 2006-04-06

Abstract

This study aims to explore the real situation in school libraries in Navarre and the Basque Country. In order to do this a series of questionnaires were sent to headmasters, librarians, teachers and students in different school centres covering both Primary and Secondary Education. Data collection was completed by interviewing some headmasters and school librarians and with in situ observation of the real situation of the libraries. Specifically, the three aspects which were analysed in this article have been the use, management and functioning of school libraries. The results obtained have shown up some strong points and particularly the deficiencies which exist in the aforementioned aspects.

Keywords: Evaluation. School library. Primary education. Secondary education. Basque country.

Este estudio pretende explorar la realidad de las bibliotecas escolares en la Comunidad Foral de Navarra y en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Para ello se han aplicado una serie de cuestionarios a los directores, encargados de biblioteca, profesores y alumnos de distintos centros escolares tanto de Educación Primaria como de Educación Secundaria. La recogida de datos se ha completado con algunas entrevistas a directores y responsables de bibliotecas escolares y con la observación in situ de la realidad de las bibliotecas. En concreto, las tres dimensiones que se han analizado en el presente artículo han sido la utilización, la gestión y el funcionamiento de las bi-

bibliotecas escolares. Los resultados obtenidos han dejado en evidencias algunos puntos fuertes y sobre todo las carencias existentes en las dimensiones antes señaladas.

Palabras clave: Evaluación. Bibliotecas escolares. Educación Primaria. Educación Secundaria. País Vasco.

Cette étude prétend explorer la réalité des bibliothèques scolaires dans la Communauté Forale (relative aux « fiefs ») de Navarre et dans la Communauté Autonome du Pays Basque. Pour cela, on a appliqué une série de questionnaires aux directeurs chargés de la bibliothèque, professeurs et élèves de différents centres scolaires, aussi bien dans l'Enseignement Primaire que dans l'Enseignement Secondaire. La collecte de données s'est complétée avec quelques entretiens avec les directeurs et responsables des bibliothèques scolaires et avec l'observation sur place de la réalité des bibliothèques. En somme, les trois dimensions que l'on a analysées dans le présent article ont été l'utilisation, la gestion et le fonctionnement des bibliothèques scolaires. Les résultats obtenus ont mis en évidence certains points forts et surtout les manques existants dans les dimensions mentionnées ci-dessus.

Mots clé: Evaluation. Bibliothèque scolaire. Education primaire. Education secondaire. Pays basque.

BIBLIOGRAFIA

- ANABAD, FESABID eta Ministerio de Cultura (1997): *Las bibliotecas escolares en España: análisis de resultados del estudio sobre la situación*. Madrid.
- ÀREA D'EDUCACIÓ (1999): *Les biblioteques a les escoles públiques de Catalunya*. Barcelona: Diputació de Barcelona.
- BARÓ, M., MAÑÁ, T. eta COMALAT, M. (2002): «Las bibliotecas de los centros públicos de Educación Secundaria en la ciudad de Barcelona». *Anales de Documentación*, 5, 59-71, 2002.
- DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN Y CULTURA (1999): *Una aproximación al estudio de las bibliotecas escolares en Navarra. Claves para su mejora*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- MARCHESI, A. eta MIRET, I. (2005): *Las Bibliotecas escolares en España. Análisis y recomendaciones*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- ORTIZ-REPISO, V. eta CAMACHO ESPINOSA, J.A. (2004): «La radiografía de las bibliotecas escolares de Castilla-La Mancha. La biblioteca escolar central». *Educación en Castilla-La Mancha* 22, 2004 martxoa.

Legedia

- 32/2002 FORU LEGEA, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena (NAO 142, 200-11-25).
- 172/2004 FORU AGINDUA, ekainaren 28koa, Hezkuntza kontseilariak emana, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta jarduna 2004-2005 ikasurtean arautuko dituzten jarraibideak onesten dituen. (NAO 91, 2004-7-30).
- Departamento de Educación y Cultura. Centro de Documentación del Servicio de Renovación Pedagógica (1999) «Una aproximación al estudio de las bibliotecas escolares en Navarra». Bibliotecas Escolares. Blitz, ratón de biblioteca. Ed: Gobierno de Navarra. Euskarazko eta gaztelerazko bertsioak PDF formatuan ikusteko: <http://www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/aprox.html>
- 583/2002 EBAZPENA, uztailaren 15ekoa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Lehen Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituen. (NAO 110, 2002-09-11).
- 527/2002 EBAZPENA, ekainaren 27koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituen.
- Nafarroako Hezkuntza Saileko argitalpenak PDF formatuan: <http://www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/biblioteca/coleccion blitz.php>.
- 1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (EHAA 38, 1993-02-25).
- 228/2002 DEKRETUA, urriaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen duena. (EHAA 204, 2002-11-25).